

**AURRERA,
HARTU PARTE!**



Geologiaren eszentrikotasuna

Primer Premio de Bachillerato 2023
(J.M. – Larramendi Ikastola - Mungia)

Argazkiak bidaltzeko posta elektronikoa:
argazki.geologikoen.lehiaketa@gmail.com

ZientziaAstea

2024ko azaroaren 6tik 10era

Koordinatzailea

José Julián Esteban Guzmán
Geologia Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU

Epaimahaia

Arturo Apraiz
Geologia Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU

Isabel Díez San Vicente
Landareen Biologia eta Ekologia Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU

Pablo Puelles
Geologia Saila
Zientzia eta Teknologia Fakultatea
UPV/EHU




Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ZIENTZIA
ETA TEKNOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE CIENCIA
Y TECNOLOGÍA

Lehiaketaren XVI. Edizioa

ARGAZKI GEOLOGIKOA BILBAO



Las Grietas en la Montaña Blanca

Primer Premio de ESO 2023
(M.C. – IES José del Campo (Ampuero-Cantabria))

ARGAZKIAK AURKEZTEKO EPEA
2024ko urriaren 1etik azaroaren 5ra

LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Gaia

Argazkiaren gaiak lotura izan behar du **geologia**ren edozein adarrekin, eta balio artistikoa zein zientifikoa izango dira kontuan.

2. Parte hartzaileak

DBHko eta Batxilegoko ikasleek, Euskal Autonomia Erkidekoak zein erkidego mugakideetakoak, parte hartu ahalko dute.

DBHko hiru argazkirik onenei eta Batxilergoko hiru onenei emango zaie saria. **Lehen saria:** diploma eta *ehudendan* erosteko 150 euroko txartela; **Bigarren saria:** diploma eta *ehudendan* erosteko 100 euroko txartela; **Hirugarren saria:** diploma eta *ehudendan* erosteko 50 euroko txartela.

3. Baimena

Parte hartzaileek baimena ematen diete antolatzaileei argazkiak kopiatu edota erabiltzeko irakaskuntzarako, prestakuntzarako edo antzeko helburuetarako, beti ere, irabazi asmorik gabeko jarduerak badira eta merkataritzarako helbururik gabeak. Argazkirik onenak gune hauetan jarriko dira ikusgai: www.zientzia-astea.org/ , <http://www.geologia.eus> eta Instagramen, @geologia.eus kontuetan.

3. Argazkien ezaugarriak

Argazkiak jatorrizkoak izan behar dira, eta inoiz argitaratu gabeak; ezin izango dira izan beste lehiaketa batzuetarako aukeratukoak edo sarituak; eta hirugarrenen eskubiderik gabeak izan behar dira.

Formatu digitalean aurkeztu behar dira (JPG), koloreetan edo zuri-beltzean, eta ez da onartuko tresna digitalen bidez

moldatutako argazkirik. Tamaina 10x15 cm-koa izan behar da, 300 ppp-ko bereizmenduna eta, gehienez ere, 9 MB-koa.

Parte hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, baina ezin izango du sari bat baino gehiago lortu.

4. Argazkiak aurkezteko eta bidaltzeko era

Posta elektronikoz bidaliko dira, eta mezu bakoitzean argazki bakar bat erantsiko da. Postaren testuan zehaztu behar da: izenburua, irudiaren esanahia (gehienez 200 karaktere espaziorik gabe) eta argazkia non atera den. Mezuan bertan zehaztu beharko dira, era berean, egilearen izen-abizenak, NAN zenbakia, posta helbidea, ikastetxea, maila, telefono zkia. eta posta elektronikoa. Bestalde, mezuan, argazkiak erakusteko eta argitaratzeko baimena ematen duela adierazi behar du parte hartzaileak. Argazkiak hartu ahala, koordinatzaileak zenbaki bat jarriko dio argazkiari, eta datu base bat osatuko du argazkien zerrendarekin eta parte hartzaileen datuekin. Epaimahaiak zenbakien bidez identifikatuko ditu argazkiok, eta antolatzaileak baino ez du jakingo argazkia norena den.

5. Argazkiak non aurkeztu eta epeak

Argazkiak posta elektronikoz bidali behar dira argazki.geologikoen.lehiaketa@gmail.com helbidera.

Epea 2024ko urriaren 1ean hasi eta azaroaren 5an amaituko da. Mezu elektronikoa hartu den eguna hartuko da argazkiaren aurkezpen datatzat.

6. Epaimahaia

Epaimahaiko kide izango dira UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko irakasleak.

Saridunak ebazteko, epaimahaiak kontuan izango du argazkiaren kalitatea, baina horrez gain, argazkiaren berezitasuna, originaltasuna, zabalkunderako duen balioa eta azalpeneko zuzentasun zientifikoa ere hartuko ditu

aintzat.

Epaimahaiak eskumena dauka lehiaketa honetako oinarriak interpretatzeko, edo oinarriotan jasota ez dauden egoerak ebazteko.

Epaimahaiaren erabakia Bilbon emango da argitara Zientziaren Astean, azaroaren 6tik 10era bitartean. Ezin izango da epaimahaiaren erabakien kontra egin, eta sariak eman gabe gera daitezke.

Lehiaketaren emaitzak Zientzia Astean geologiako atalak izango duen standean (Bizkaia Aretoa) emango dira argitara, bai eta web gunean ere ([zientzia-astea.org](http://www.zientzia-astea.org)). Sariak azaroaren 10ean, 13:30ean, banatuko dira Zientzia Astean (Bizkaia Aretoa, Bilbo).

7. Lizentzia:

Parte hartzaileek adierazten dute eta bermatzen dute berek direla argazkiaren egile eskubideak dituzten bakarrak, eta berek izango direla hirugarrenek jarritako erreklamazioen erantzule, eta, beraz, adierazten dute lehiaketako koordinatzaileak ez duela erantzukizunik izango inork erreklamaziorik jarritz gero.